

POZ ALDIAK

(Azkeneko indar-neurtzeetan Aipamen onragarria irabazia.)

Bialdu ditut noizbait
kezka char guziak
nere barrena usartzen
aspaldi asiak.
Sasi t'esolez ermo
baneuzkan josiak,
zabalik dauzkat orain
bideka esiak.

Griñak ezin gordeaz
uzkurka zebiltzan
lagunetatik baña
atzeratu nitzan;
biderik zelayena
neretzat ura zan
t'orain lagunik gabe
nayago det izan.

Askok uste izan zuten
neretzat kaltea
beste geigo gabe
lagunak uztea;
biotza bañan daukat
pozkidaz betea,
lagun ona dalako
barrengo pakea.

Bide charretik ez naiz
ezerchoren zale
lapur aberats baño
obe da eskale;
argi ta garbi nai det
maltzurkeri gabe
lanean irabazten
dedanaren jabe.

Neke gairik ez det
egiteko lana
guzik degun ezker
zer egin bear bana.
Poza, egizko poza,
miñ-azgarri dana
lanaren bideetatik
sortu zan nigana.

Biotza guri guri
t'ar gabe barrena
da ezin erosi dan
sendaki ederrena;
griñ charrak oinpetzean,
ikaraz aurrena
bañan zabaldutzen da
gero datorrena.

Argi geyagon zale
baneuzkan gairak
— ara bada ni emen —
esan dit argiak
t'arindu dizkit neuzkan
illunki guziak
argirik argien dan
zeruko eguzkiak.

Eder t'alai guzia
ikusten det oraiñ,
basaldeak abartsu,
belardiak apaiñ.
Lasatu naizenean
atsegintzeko laiñ
biotzkadak zoritsu
datozkit buruz gaiñ.

Biotzak billatzean
loreen usayak
poza ematen dio
maite dun zelayak;
loreen eraz ere
basoko tantayak
barrua ikutzeko
badituzte gayak.

Zoragarri zeraten
mendi ta basoak
poz limurrenak daude
zuentzat or jasoak;
irichi nai lituzke
or beko ichasoak
bañan alperrik ditu
luzatzen besoak.

Ugaritzen zait poza
mendira noanean,
goroldiyo biguna
zapalduz oiñ-pean;
anche billatzen ditut
pake zabalean
artzayak oleska ta
ardiak larrean.

Len aintzat artu gabe
utzitako gayak
oraiñ maiten maitena
dauzka nere nayak;
zaletsu nabai ditut
ur gañeko arrayak
t'odeyetan dabiltzan
sapelats ernayak.

Emazte ta umeak
ama eta anayak
batera biltzen gaitu
sukaldeko mayak.
Ez ase arren oso
gosearen nayak
lendik maiztu zaizkigu
cholarte alayak.

Zoriona zaigulako
irichi sendira
aita re pozez dago
zerutik begira.
Jaunak, onen bitartez,
izan du kupira,
eta lengo malkoak
poz biurtu dira.

Gure naimen guziak
ase ezin litezke
baten ondoren gaude
beste baten eske;
noizbait betetzen dira
ez negar t'ez neke
eta guk nai giñuzke
beti orren merke.

Miñ eta atsekabeak
naiz oraiñ urruti
¿datorrenari — betor —
zeñek esan beti?...
Malko batez jartzen da
biotza zapuzti
¿malkoz bañan matralla
zeñek ez du busti?...

JUAN MÚGICA LASQUÍBAR